

EL CARMELO ESKOLA HEZKIDETZA PROIEKTUA 2019/2020

➤ **HH5:**

- Haurrengan genero estereotipoetatik eta diskriminaziotik libre dauden eskemak sustatzea, berdintasun jarrerak garatzeko.
- Sexuaren araberako hainbat estereotiporekin apurtzea, berdintasuna sustatuz eta diskriminazioa gaitzetsiz.
- Haiek diren bezala, neska edo mutila izateagatik mugarik gabe, adieraztea, sentitzea eta aritzea aberastasun handia dela jabetzea. Era honetan, nesken ahalduntzea sustatuz.
- Familia aniztasunari balio positiboa ematea.

Iraupena: Ordu beteko bi saio talde bakoitzeko.

➤ **LH1/LH2:**

- Rol eta estereotipoen lanketa joko kooperatiboen bitartez. Neska eta mutilen parte-hartzea bultzatuz, estereotipo sexistak alde batera utziz.
- Aniztasunaren balio positiboa sustatu.

Iraupena: 3 ordu talde bakoitzeko.

➤ **LH3/LH4:**

- Sexu genero sistemaren hurbilketa.
- Rol eta estereotipoen lanketa.
- Sexu orientazio ezberdinak errespetatzen.
- Maskulinitate berrien hurbilketa.
- Etxeko lanen banaketa. Erantzunkidetasuna sustatu.

Iraupena: 3 ordu talde bakoitzeko.

➤ **LH5/LH6/DBH1:**

- Generoaren araberako rol eta estereotipoak landu.
- Harreman sozialetarako gaitasuna.
- Borrokak saihestea eta harreman-arazoak konpontzeko, komunikazioa ezartzea.
- Emozioen lanketa (autoestima, empatia..).

- Tratu onak eta talde harremanak.
- Aniztasunaren garrantzia eta balorazioa.

Iraupena: 3 ordu talde bakoitzeko.

➤ **DBH2/DBH3/DBH4/BATX1/BATX2:**

➤ Autodefentsa feminista (neskekin):

- Emakumeok indarkeriarekiko dituzten bizipenak konpartitu eta biltzea. Esperientzia ezberdinak partekatu eta iritzi trukaketa egitea.
- Elkar entzutea eta beldur eta emozio ezberdinei buruz lasai hitz egiteko tarte eta espazioa eskaintzea.
- Indarkeria egoerak, eraso ezberdinen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea.
- Emakumeon arteko elkartasuna lantzea; elkartasun eta aliantzak ereitea.
- Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea.

➤ Maskulinitate berrien inguruan hausnartzen (mutilekin):

- Maskulinitatea eta gizon izatea zer den eta hauen arteko erlazioen inguruko hausnarketa.
- Gizarteak generoaren arabera ezartzen dizkigun mugen inguruan eztabaidatzea, bai emakumeek duten hertsitasunaz, baita gizonen erlazionatzeko mugez.
- Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde egitea eremu eta aspektu guztietan: lege, gizarte, lan, familia, hezkuntza eta abarretan.
- Gizonen aldaketa bultzatzea, berdintasunaren aldeko eta maskulinitate eredu tradizionalaren aurkako jarrerak sustatuz.
- Gizonen arteko elkar laguntza bultzatzea.

Iraupena: 2 ordu talde bakoitzeko. Taldeak banatu egiten dira, neskak eta mutilak. Bakoitzarekin egin beharreko lana ezberdina baita. Saio hauek oso aberatsak izaten dira eurentzako.